


Naia Soler Iturrioz

A maila • 3 aipamena

Naia Soler naiz, 17 urte ditut eta Bartzelonan jaiotako ordiziarra naiz. Eskubaloia eta euskal dantzak egiten ditut nire denbora librean. Beti gustatu izan zaizkit irakurtzea eta idaztea, baina azken hori gehienetan neuretzako baino ez dut egin.



ETA ONDOREN, GALDU EGITEN DUGU

Zilar koloreko ilargi beteak itsasoaren gainean dantzatzeko zuen eta hego haize leunak nire ilea ferekatzen zuen. Brastakoan ailegatu zelarik, amaiera dagoeneko hortxe zegoen. Nire bizitzako azken unea hura bazen, ilargia lekuko zen itsasoaren eta itsaslabarreko arroken arteko lehia ikuskizun nuela izan zedila.

Amaren ahotsak esnatu ninduen asteazken hartan. Ohi baino lehenago argitu zuen egunak eta txori zalapartarien kantuak entzuten ziren nonahi. Ogia erosteko agindu zidan amak oraindik guztiz esnatu gabe nengoenean. Aurpegia garbitu bezain laster, sukaldara joan nintzen eta goizeroko lez, kafesnea prestatu nuen. Ondoren, ogia erosteko amak utzitako dirua poltsikoan sartu nuen, gero etxea utzi eta kalerantz abiatzeko.

Egunak lasaia zirudien, gizon gutxi ikusten zen. Eguzkia atera berria zen, kaleak kolorez betetzen zituzten oihaltzatuekin egindako soinekoak hara eta hona zebiltzan. Emakumea zen gehiengo bat. Haien soinekoak ez bezala, denek aurpegi tristea zeramaten jantzirik. Espresiorik gabeko begiek eta haien aurpegian marra horizontal bat marrazten zuten ezpainen, emakume horien baitan zegoen edertasuna ikustea oztopatzen zuten. Denak presaka zihoazen, denbora bukatzen ariko balitzaie bezala. Agian hala zen; denboraren kontrako lehia batean bizi baikara.

Azken finean, horixe da denbora; irabaz ezina den lehia. Daukagunean aprobeztatzen ez dugun ilusio bat. Eta gure buruari denbora galduko ez dugula mila bider errepikatu harren, beti bukatzen dugu iraganean galdutakoa faltan sumatzen. Denboraren esklabo bihurtu gara. Horregatik, egun hartan bizirik zeudela eta eguraldi paregabea egiten zuela ospatu beharrean, behera begira eta pausu arinetan mugitzen ziren kalean zebiltzan guztiak.

Okindegitik gertuago nengoen, zortzi minutu baineramatzen oinez. Kalean ikusten nituen emakumeen pauso arinek eta begirada makurrek, barnean gorderik zeramaten eta ezkututzen saiatzen ziren beldurra salatzen zuten. Maiz pentsatu izan dut begiradak bere kasa hitz egiten duela. Ezin baita gorde zure gain daramazuna.

Fresko egiten zuen eta eskuak poltsikoan sartu nituen. Halako batean, kale estu batetik nindoala, bultza egin zidaten eta lurrera erori nintzen ahuspez. Eskua patrikara eramatean dirua ostu zidatela konturatu nintzen. "Kaka zaharra!" egin nuen oihu nire baitan. Etxea urrun

geratzen zitzaidan jada; beraz, Samirren etxera joatea otu zitzaidan. Lagun ona zen. Dirua hari eskatuko nion eta hurrengo egunean bueltatu. Beste hamar minutu behar izan nituen bere etxera iristeko. Bidea amorru bizian egin nuen, lapurra madarikatuz. Bagenituen familian nahiko arazo, ezezagun ziztrin bat etorri eta genuen dirua lapurtzeko! Bidean zakarrontzi bat ikusten nuen bakoitzeko, ostikoa emateko gogo bizia sentitzen nuen; baina ez nuen bat bera ere ukitu.

Samir bigarren pisuan bizi zenez, hogeita hamar eskailera igo nituen; baina iritsi nintzenean, hara sartzean lehena ez nintzela izan konturatu nintzen. Atea parez pare irekita zegoen eta dena hankaz gora zegoela ikusi nuen. Nire lagunaren izena oihukatu nuen, baina ez zidan inork erantzun. Argi zegoen nire laguna norabait eraman zutela. Orduan, nire arnasaren erritmoa azkartzen zihoala eta nire azala izerdiz bustitzen hasi zela sentitu nuen. Ez zegoen inor etxe hartan; ezta Samirren ama edo ahizpa ere.

Segundo batzuen buruan, Samirren etxeko leihotik ikusitako furgonetaren atzetik nindoan korrika. Ikusi bezain laster jakin bainuen hor egongo zela nire laguna. Banekien ezin izango nuela autoa harrapatu. Baina ez nuen amore aman nahi. Lurrera begira lasterka, indar guztiak ia ahitu nituen azkenean estropezu egin eta lurrera erori nintzen arte. Arnasestuka nengoen eta lurraren usain sendoa sudurretik barrena birikak zikintzen zizkidanaren irudipena nuen. Bat-batean norbaitek hankan ostikoa eman zidan. Buelta eman nuenean, gizon bat ikusi nuen; altua, kementsua eta gaztea zen. Haren begirada gardenak bere asmoak salatzen zituen. Bihotza taupada bizieta ari zitzaidan mugitzen, baina ez zen ordura arte egin nuen korrika saiogatik; aitzitik, beldurraren ondorioa zen. Altxatzeko agindu zidan, eta bi aldiz pentsatu gabe kasu egin nion. Besotik gogor eutsi zidan eta tiraka baso alderantz eraman ninduen. Min egiten zidan, baina ez nintzen kexatu. Samirrengan pentsatu nuen orduan. Norako bidean egongo zen? Zer egingo zuten berarekin? "Adi!" esan zidan ozenki. Bere ahots grabeak lasaitu egin ninduen nolabait. Ez dakit nola esan hitzez; besterik gabe, ez zidala min egingo jakin nuen hitz egin bezain pronto. Esatear zihoana berriz pentsatzen ari zela esango nukeen. "Alde hemendik! ahaztu ezazu zure laguna eta ihes egin! Baina ez zaitzez eskolara joan." Azkeneko hitz haiek soinean neramatzan jantziei begira esan zituen. Orduan begiak asko ireki nituen eta korrika aldendu nintzen betiko ezezaguna izango den gizon harengandik.

Ulertu nuen zer esan nahi izan zidan, ondo ulertu ere. Horregatik nindoan nire eskolarantz. Siria bakarrik nuen buruan. Nire ahizparen bila joan eta elkarrekin ihes egingo genuen.

Siria haizea bezalakoa zen; xaloa baina batzuetan ikus zitekeen indar ezkutu batekin. Haren begi ilun eta handiek poza eta itxaropena igortzen zuten. Triste jartzen zenean, ordea, aurpegia itzaltzen zitzaion, barnean zeraman kriseilua bat-batean itzali izan balitzaio bezala. Ezagutzen zuten guztiek zuten maite. Nik inork baino gehiago. Gogoan dut ume polit hura jaio zen eguna. Nire amaren besoetan ikusi nuen lehen aldiz. Lo zegoen. Bakean eta lasai. Begiak itxita aurpegian zuen espresioagatik amets ederren bat edukitzen ari zela pentsatu nuen. Amaren aurpegia antzematean, zoriontsu zela ikusi nezakeen. Hain da ederra oroitzapen hori... Nire garunean garrantzitsuenekin batera gordetzen dut, eta askotan ekartzen dut gogora, inoiz ez dadin nire oroimenetik lausotu.

Hamabost minutu korrika jardun ondoren, egunero orduak pasatzen nituen eraikinaren zerrautsak ikusi ahal izan nituen urrutira; baita inguruan zebiltzan gizonak ere. Etxe bateko hormaren kontra babestu nuen nire burua. Tarteka burua ateratzen nuen Siria ikusteko esperantzaz. Horrela pasa nuen minutu bat. Alabaina, ez nuen aurpegi ezagunik ikusi. Nire

bizitzako pertsonarik garrantzitsuena izandakoa hauts astun horren azpian zegoen; eta nik sekula ezingo nuen berriro ikusi.

Nekez ibil nintekeen, barnean sentitzen nuen suminak ez zidan arnasa normaltasunez hartzen uzten. Konortea galtzera nindoala iruditzen zitzaidan; negargura nuen, ozenki buila egiteko gogoa. Behin eta berriz errepikatu nuen nire baitan hori guztia amets bat besterik ez zela; amets gaizto bat soilik, eta edozein momentutan esnatuko nintzela. Baina ez nintzen inoiz esnatu. Amets gaizto hartan harrapaturik gelditu nintzen, eta bizi grina duen edonork egingo lukeen bezala, gorputzean geratzen zitzaidan indarraz baliatu nintzen inor begira ez nuela ziurtatu, eta hautsez osatutako behe lainoa nagusi zen lurra atzean uzteko.

Ettxera joatea pentsatu nuen; agian Siria eta ama etxean egongo zirela pentsatze hutsak,esperantza sortzen zidan.

Halako batean, urrutira putre handi eta beltzak ziruditen hegazkinak ikusi nituen. Hildakoaren usainaren atzetik dabiltzan txori baldarrak ziruditen; gosez, hegoak zabalik jan bila zihoazenak hain zuzen ere. Orduantxe konturatu nintzen nire asmoa alferrikakoa zela. Begiak gogor itxi nituen; itsu geratzeak errealtatetik babestuko banindu bezala. Bat-batean inguruko guztia soinu ozen eta suntsigarri batekin desagertzen zela iruditu zitzaidan. Soinuak ni eta nire ingurua hartuko balitu bezala. Momentu ñimiño batean lasaitasuna sentitu nuen; dena bukatuko balitz, bizitzen ari nintzen amets desatsegin hori ere desagertuko litzateke. Zoritxarrez, begiak ireki ahal izan nituenean, denak hor jarraitzen zuen eta beldurra minarekin batera, nire baitara itzuli zen. Ezin nuen ezer entzun; lehenago entzun nuen burrunba, soinu arin baina iraunkor bihurtu zen. Mugimendua ikusten nuen nire inguruan: korrika zebilen jendea, beldur aurpegiak eta garrasiak. Azken horiek entzun ezin nituen arren, imajinatu egin nituen; ez baitzen zaila aurpegi haien espresioak ikustean. Izua baino ezin zen ikusi bertan.

Pauso baldarrak emanez, aurrera egitea lortu nuen. Ez dakit nondik atera nuen oinez jarraitzeko ausardia eta kementa. Kontua da umez gainezka zegoen kamioi bat ikusi ahal izan nuela. Gerrillez gain, neskatoak eta txikiagoak ziren mutilak ikusi nituenean, hari segika hasi nintzaion. Oraindik gelditzen zitzaidan energia urria kamioiaren atzetik joateko erabili nuen; eta hura gelditzen zela ikustean, ibiltzeko behar nuen guztia agortu zitzaidala jakin nuen. Bertara igo nendin, bi gerrilla jaitsi ziren auto baldar hartatik. Barrura sartu ninduten eta behin ingurura begiratu ahal izan nuenean, aurpegi haiek ikusi nituen. Beldur aurpegiak ziren denak. Beso artean bere panpina gogor estutzen zuen neskak bat ikusi nuen. Zortzi urte izango zituen gehienez; bere begi ilunek nireak zeharkatzen zituzten. Arreta handiz begiratzen ninduen; aspaldian ikusi gabe egon ondoren, asko aldatu den lagun bati begiratzen diozun bezala. Bere ondoan mutiko bat zegoen. Oraindik txikiagoa zen, lau urte izango zituen. Ezagun zen neskatoaren neba txikia zela. Bien eskuak bata bestearekin lotuta zeuden. Gogor. Eskuak estu. Inor inoiz haiek askatzeko gai izango ez zela ematen zuen.

Ez dakit zenbat denbora igaro zen kamioia gelditu zen arte; izan ere, nekeak jota lo gelditu nintzen. Nire ondoan zegoen emakume batek sorbalda ukitu zidanean esnatu nintzen. Jada iluntzen hasia zen; beraz, bidaiatzen ordu asko generamatxala ondorioztatu nuen. Altxatu nintzenean, han egotearen arrazoiak gogoratu nintzen. Gorputz osoan minbera gogaikarri bat sentitzen nuen; baina ez nion jaramon egin nahi izan. Bidaiari guztiak atera ginenean, talde ezberdinetan sakabanatu gintuzten. Norbait negarrez entzutea iruditu zitzaidan orduan. Lehenago ikusi nituen anaia-arrebak ziren. Talde ezberdinetan banatu nahi zituzten; baina mutikoak bere arrebaren eskua gogor estutzen zuen. Halako batean, bertan zegoen gerrilla batek mutikoa modu txarrean eldu eta tira eginez, neskatoagandik urrundu zuen. Txikiena,

ekintza horren aurrean, builaka hasi zen; ikara eta malkoak aurpegian zituela, tira egin zion gizonari joka. Garbi zegoen soldaduari min egiten ez ziola; baina izugarri haserretu zen eta bi aldiz pentsatu gabe, gerrian zeraman pistola hartu, mutikoa destatu eta katua sakatu zuen. Begiak itxi nituen; baina berdin-berdin entzun nuen mutiko errugabe haren gorpuak lurra nola jotzen zuen. Segituan begiratu nion orain hilda zegoen pertsonaren arrebari. Ez zuen buila egin. Ez zuen txintik ere atera. Bere masailetan behera malko gazi eta lodi bat irristatzen zela ikusi nuen; eta bere begiradak mina baino ez zuen adierazten. Ez zuen gorpua begiratu; ezta haren hiltzailea ere. Bere sufrimenduaren kontra borrokatu zuen soilik.

Oinez aurrean zegoen soldadua jarraitzeko agindu ziguten emakume taldea osatzen genuenoi; eta mutikoak atzean utzita, haiek nahi bezala obeditu genuen. Nekatuta nengoen; edozein harrirekin estropezu egiten nuen eta pare bat aldiz erori nintzen lurrera. Bide luze hartan Siria, amatxo eta Samir ekarri nituen gogora. Non egongo dira? Galde egiten nion neure buruari. Gaur goizean nire bizitzako parte ziren pertsona bakarrak, ordurako desagertuak ziren. Eztarrian geroz eta sendoagoa zen korapiloa sentitzen nuen; eta banekien lehentxeago edo gerotxoago negarrak askatuko zuela. Baina ez nuen hori egin nahi. Begiak bustitzen zitzaizkidan arren, ez nuen malko bat ere bota nahi; artean ez. Segituan ilundu zuen eta euri tanta lodiak hasi ziren zerutik erortzen. Tanta horiek zaparrada bihurtu ziren bizkor. Bost minutu gehiago ibili ginen aterpe bat bilatu genuen arte. Kobazulo ilun bat zen; nekez sartzen ginen denok han barruan. Orduan erreparatu nion lehenengo aldiz gurekin zetorren gerrilla bati. Gaztea zirudien; ez zen ni baino askoz zaharragoa izango. Begiak baino ikusi ezin nizkion arren, ezaguna irudituz zitzaidan. Ez zirudien eskuen artean zuen armarekin eroso. Berriz begitara begiratu nionean, nire begira zegoela ohartu nintzen. Hain egiten zitzaidan ezaguna haren begirada... Euria gelditu zenean, berriro ere, abian jarri ginen.

Asko kostatzen zitzaidan iluntasun hartan zerbait ikustea; baina izarren eta ilargiaren argitasuna ikusi nezakeen behintzat. Lehen zerua estaltzen zuten hodeiak birrindu izan balira bezala zegoen zerua. Oso gustuko nituen horrelako gauak. Ama, aita, Siria eta ni sarritan joaten ginen izar usoak ikustera horrelako udako gau epeletan. Siriak eta biok ea nork horietako gehiago ikusi jolasten genuen; eta bat ikusi orduko salto egin eta izarrak utzitako arrastoari seinalatuz, zein ederra izan zen azaltzen genien gurasoei. Haiek barre egiten zuten. Zoriontsu ziren. Zoriontsu ginen. Hamabiak jotakoan, kotxean sartzen ginen etxera itzultzeko. Eta horrela, udaren amaiera iristen zen arte. Uda hori, ordea, desberdina izan zen. Aita gabe, familian hutsune handia sumatzen genuen. Bide zakar hartan, goizean Siriak amari egindako galderaz oroitu nintzen. "Itzuli al da aita?" galdetu zion. Amak, ordea, irribarre triste bat eginez, buruarekin ezezkoa egin zion. "Ez maitea; baina ziur nago laster izango dela etxean". Hori, ordea, ez zen egia. Egun hartan, gurea izandako etxea guztiz suntsituta baitzegoen; baita familia hori osatzen zuten kideak ere. Hilda edo bizirik geunden, batek zekien.

Motor zarata entzun genuen oinez genbiltzanak; denok burua jaso baikenuen momentu hartan. Hainbat auto gerturatu ziren. Soldaduen arteko buila eta aginduen ondoren, garraioetara igotzeko eskatu ziguten. Zenbait begirada nola pizten ziren ikusi nuen autoetatik zetorren argipean. Ez ginen minutu asko egon auto haien barruan. Ezin izan ginen eseri ere egin. Kanpamentu antzeko batera iritsi ginen; bertan zeuden soldadu gehienak gazteak ziren; hasi berriak ziruditen. Batzuk gogotsu ikusten nituen; beste batzuk, berriz, beldurtuak ematen zuten. Ez nuen ulertu. Nola egon zaitezke beldurturik esku artean edozein bizitzarekin akabatzeko ahalmena duen traste bat duzunean? Bada, hortxe dago gakoa. Edonori kendu diezaiokezulako bizitza. Baina hori, denbora gutxi barru jakingo nuen.

Jateko eman ziguten. Salda beroa banatu zuten errefuxiatuon artean. Zopak eztarria erretzen zidan arren, trago batean edan nuen dena. Gose nintzen; goizean hartutako kafesnea baino ez nuen edan egun osoan zehar. Hala ere, ordu asko ezer ahora eraman ez zuen bakarra ni ez nintzela ikusi nuen; minutu bat baino gutxiago behar izan baikenuen eskuartearen genuen katilua husteko. Ondoren, eskutatik zakar kendu ziguten edalontzia eta denok gertatuko zenaren zain geratu ginen.

Ez zen ezer gertatu denbora luze batean eta lo geratzen ari nintzela sentitu nuen; behingoz, bake antzeko zer bait sentitu ahal izan nuen. Begiak itxi nituenean, ordea, sentsazio hori segituan marguldu zen; izan ere, tiro hotsak entzun nituen; baina ez ziren urrutikoak. Kanpamenduan bertan gertatu baitziren. Begiak irekitzean, gertatzen ari zena ikusi eta zitzu bizian altxatu nintzen. Inguruan zeuden gizon guztiak haien armarekin tiroka ari ziren. Hasieran gorantz apuntatzen zuten; baina segituak errefuxiatuen norantza hartu zuten pistolek. Bihotza bularretik ateratzera zihoala sentitu nuen. Denak korrika hasi ziren eta nik, builak entzuten nituen tiro hotsen artean. Bi aldiz pentsatu gabe, kanpaleku handi hartatik ateratzeko, aterantz jo nuen. Infernu hori atzean uztea lortu nuen inoiz baino azkarrago korri eginez; eta ez nintzen gelditu. Basoan barrena korrika jarraitu nuen, zuhaitzen enbor eta adarrek azala urratzen zidaten; oinak min egiten zidaten egunean zehar egindako ariketagatik; sarritan lurrean zeuden harri edo enbor zatiekin estropezu egiten nuen; baina gelditzen zitzaidan indarraz baliatuz, altxatu eta lasterka jarraitzen nuen. Arnasa hartzeak ere, min egiten zidan; baina hala eta guztiz ere, ez nuen malko bat bera ere bota. Ez nengoen negar egiteko prest; egiten nuen momentuan ezingo nintzen gelditu eta horrek nire korrika saioaren amaierara eramango ninduen. Luzaroan egon nintzen korrika. Edo hala iruditu zitzaidan niri, behinik behin.

Halako batean, desberdina iruditu zitzaidan lurzoru bat sentitu nuen oin-zolan eta bat-batean gelditu nintzen. Nire bularra gora eta behera bizkor mugitzen zen. Nekeak brastakoan nire gorputza hartu izan balu bezala sentitu nuen. Hondartza batean nengoen eta ez zegoen aurrera jarraitzerik. Burua alde batera eta bestera mugitu nuen; nonbait ihesean jarraitzea ahalbidetuko zidan bideren baten bila. Askok bilatu arren, ordea, ez nuen nire arazoagandik aldenduko zidan bidezidorrik ikusi.

Bakarrik nengoela uste nuen; baina ideia segituan ezabatu zitzaidan burutik nire atzealdean austen zen adar bat entzutean. Beldurak jota, buelta eman nuen; eta hantxe ikusi nuen lehenago kobazuloan begiratu zidan gerrilla. Orduan ulertu nuen zergatik egin zitzaidan horren ezaguna. “Eskuak gora!” egin zidan oihu. Momentu hartan, egun osoan zehar atera ez zitzaidan malkoa nire masailean behera irristatu zen. “Eskuak gora esan dizut!” berriz. Nik kasu egin nion. “Buelta eman” esan zidan; oraingoan ez zuen zakarkeriaz egin. Nik kasu egin nion. “Jarri belauniko” agindu zidan. Nik begiak itxi nituen eta nire sufrimendua menperatzen saiatu nintzen. “Belauniko jartzeko!” Berriz oihu. Nik kasu egin nion. “Samir” esan nion tristuraz urratutako ahotsaz. Momentu hartan, Samirrek zuen aurpegia imajinatu nuen. Banekien hura ere, sufritzen ari zela. Hala behar zuen; ezin zion ordu gutxitan nire laguna izateari utzi; ezta?

Siriarengan pentsatu nuen; bere gorpua aurkitzen zuenak inoiz ezagutuko ez zuen neskarik ikaragarrienaren gorputzaren aurrean egongo baitzen. Amarenagan pentsatu nuen; bizirik egongo ote al zen galdetu nion nire buruari. Ondoren, aita ekarri nuen gogora. Samir bezala ze ume hilko zuen dagoeneko? Bukatzeko azkeneko aldiz hitz egin nion nire lagunari. “Eskerrik asko” Esan nion. “Eskerrik asko nire laguna izateagatik, hain zintzo portatu izanagatik, nire ondoan egoteagatik”. Baina azkeneko hitz horiek esateko ez nuen indarrik izan. Horrela behar zuen; bat gelditu egiten da eta bestea joan. Pelikula triste horietan bezala. Batek aurrera

jarraitzen du eta bestea bidean zehar galtzen da. Horrelakoa da gerra; hotza eta gordina. Baina filmetan ez bezala, gerra batean ez du inork irabazten; batek gutxiago galtzen du soilik.

Zilar koloreko ilargi beteak itsasoaren gainean dantzatzen zuen eta hego haize leunak nire ilea ferekatzen zuen. Brastakoan ailegatu zelarik, amaiera dagoeneko hortxe zegoen. Nire bizitzako azken unea hura bazen, ilargia lekuko zen itsasoaren eta itsaslabarreko arroken arteko lehia ikuskizun nuela izan zedila.

Pun. Tiroa.